



**B**ere egitekoetan, hurrenez hurren, bost eta lau urte eman eta gero, Lorea Bilbao Ibarrek eta Gorka Aurre Urzaak zuzendari izateari utzi diote. Bilbako zeregin berriak hartu

ditu Kultura Sailaren baitan; Aurrek, berriz, irakaskuntzari heldu dio EHU. Aurrerantzean,



**Igone Etxebarria** arituko da Euskara sustatzeko zuzendari-lanetan. Planen Zuzendaritza, bestalde, **Jokin Azkuek** gidatuko du.

Etxebarria andrea (Bedia, 1962) Labayru Ikastegian eta EITBn ibilitakoa da. Hainbat ikerketa eta libururen egile da. Azkuek (Asteasu, 1961), bestalde, ia hamar urte eman ditu HABEko zuzendaritzan.



Berak utzitako tokia **Joseba Erkizia** (Andoain, 1958) bete du. Erkizia Gipuzkoako Foru Aldundiko itzulpen ataleko burua da, eta helduen euskara irakaskuntzan ere aritua da.



**A**na Toledo euskaltzain oso izendatu zuen urriaren 21ean Euskaltzaindik, Mungian egin zuen bilkuran. Euskaltzain berriak Juan San Martin zenaren lekua beteko du Akademian eta, Miren

Azkarateren ostean, euskaltzain oso izateko Euskaltzaindik bere historian izendatu duen bigarren emakumea da.

**Ana Toledo** (Antzuola, 1954), Filologia Hispanikoan lizentziatua eta Euskal Filologian lizentziatua eta doktorea da Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean. Bertan ari da irakasle.

Euskal literatura du aztergai nagusia eta hainbat idazleren lana aztertu du: Azkue, Mogel, Etxepare, d'Abbadie... Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1996an eta Literatura Ikerketa batzordeko eta Sustapen batzordeko kide da.

Aurtengo maiatzean, berriz, Euskaltzaindik Gipuzkoako ordezkari izendatu zuten.

Euskararen Aholku Batzordeko partaide izan zen 1999tik 2003ra.



**H**ainbat dira **euskarazko hedabideak** sendotu, garatu eta normalizatzeko aldera euskal erakundeek emandako diru-laguntzak. Horien artean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak banatutakoak daude. Aurten, orotara, 3.800.000 € banatu da. Ildo beretik eta osagarritasunaren printzipioan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundiak 634.520 € banatu du lurralde hartan argitara ematen diren euskarazko aldizkako argitalpenen artean. Bizkaiko Foru Aldundiak ere beste horrenbestekoa egin du bere ardurapeko lurraldean. Orotara 344.000 € banatu du. Guztira, bada, **4.778.520 €** erabili da aurtengoan, gutxienez, euskarazko hedabideak sustatzeko. Guztirako horretan ez da hain-hemengo udalek emandakoa jasotzen.



**A**benduaren 19 eta 20an **Espezialitate-hizkerak eta terminologiari buruzko II. Jardunaldiak** egingo dira EHUko Leioako campusean, Euskara Institutuak antolatuturik. Jardunaldietan, estandarizazioa eta espezialitate-hizkeren garapenerako ezarri beharreko irizpideak eztabaidatuko dituzte, lau alorren arabera: Hiztegi Batua eta terminologia; Gramatika-arauak eta espezialitate-hizkerak; Diskurtso espezializatua eta diskurtso orokorra; eta, azkenik, Corpusak eratzeko eta ustiatzeko irizpideak.


Informazio gehiago nahi izanez gero jo Jardunaldien idazkaritzara (itziar.sarria@ehu.es).



**B**ete-betea dator aurten ere **Durango Liburu eta Disko Azoka**, euskarazko liburugintzaren erakusleihorik handiena. 40. edizioa ospatuko du feriak hil honen

7tik 11ra eta egile handien izenak ageri dira azokara liburu berriak ekarriko dituzten idazleen artean. Bernardo Atxaga, Ibon Sarasola, Juan Kruz Igerabide, Unai Elorriaga eta beste autore ezagun asko dira zerrendan. Musikari dagokionez, berriz, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Mikel Urdangarin edo Lauaxetaren omenezko diskoak iragarri dituzte.

Azokari buruzko informazio osoa, Interneten, [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com) helbidean.



**U**rriaren 8an hasi zen oinez **Bertsolari Txapelketa Nagusia**. Bide luzea oraindik, abenduaren 18an finala jokatu arte. Aurtengo berritasunetan bat baino gehiago dira nabarmentzekoak. Batetik, parte hartzen ari diren 38 bertsolarien artean, emakumezkoak dira hamar. Bestetik, finala Donostiatik Bilbora bidea egingo du, Bilbao Exhibition Center (BEC) erakustazokan jokatu da eta: "erdal mundua geureganatzeko ahalegina egin behar dugu", adierazi dute antolatzaileek.

Txapelketari buruzko informazio osoa, [www.txapelketanagusia.com](http://www.txapelketanagusia.com) helbidean.



**G**aurkotasun handiko gaia landu du BAT *soziolinguistika aldizkariaren* iraileko ale monografikoak (56 zenb.): **"Euskararen jabeakuntza eskolan"**. Bertan, lau artikulu bildu dira, laurak ere EUROSLAK (European Second Language Association) 2004ko irailean Donostian burutu zuten konferentzian euskaraz aurkeztutakoak.

Artikuluetan, eskolaren bitartez gertatzen den bigarren hizkuntzaren jabeakuntzaz ari dira zenbait aditu, aztergaiaren alderdi ezberdinak bistara ekarriz betiere.



**A**ditu eta begiraleek diotenez, erabileraren areagotzea da euskararen hurrengo erronka handiena. Hori dela eta, aspaldi ari dira batean eta bestean erabilerari eragin nahian, eta **Berbalagun** eta **Mintzakide** egitasmoak dira horren froga argiak. Lehen beste hainbat herritan bezala, oraingoan Deriotik eta Ermutik datozkigu berriak. Berbalagun nahiz Mintzakide, euskaldunak eta euskalduntzen ari direnak harremanetan jartzeko proiektuak dira biak ala biak, euskara ahal den modurik naturalenean erabiltzeko.



**H**aur eta gazte literaturari buruzko ikerketak beste urrats bat egin du berriki. Xabier Etxaniz Erle irakasle eta idazle zailduak azken hogeitaz urteotan argitara eman diren haur eta gazte literaturako

lanen antologia bi prestatu eta kaleratu ditu, gaur egungo literaturaren ikuspegi zabala eskaintzeko asmotan: **Euskal haur literaturaren antologia** dugu bata, eta **Euskal gazte literaturaren antologia**, berriz, bestea. Prestatzaileak 50 idazle aztertu ditu bi liburuetan –23, gazte literaturarenean eta 27, aldiz, haur literaturarenean–, bakoitza biografia eta bibliografia labur batez lagunduta. Era berean, egileen liburu baten edo gehiagoren pasarteak ere irakurgai dira.



**noiz egin den euskarazko ikaslibururik handiena omen da. Berez, medikuntza liburu bat da, 1.000 orrialdekoa, mardula eta mamitsua. Edurne Ugarte mediku eta irakasleak idatzi du eta Elhuyar-ek argitaratu: **Patologia Orokorra** du izenburu eta kontsulta-liburua da, euskaraz sortu eta patologia gaiak sakon jorratzen dituen lehen lana.**

Ugartek Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen (OEE) Agote Saria irabazi ondoren idatzitako liburua da.



**A**rantzazuko Bitoriano Gandiaga Topagunean erakusketa eratu dute. "Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza" izenekoa, hain zuzen ere. Bertsolariaren gaineko erakusketa hau egiten lagundu dutenen artean dira Gipuzkoako Foru Aldundia, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Euskal Telebista. Abenduaren 11 arte egongo da Arantzazun.

**Manuel Lasartek** (Leitza, 1927) aspaldi utzi zion plazarik plazako bertsoegintzari, nekeak eta osasun ezak eraginda. Geroztik, ordea, bertso jartzaile eta idazle jardun du. Aita Antonio Zavalak gidaturik, guztira zortzi liburu argitaratu ditu Lasartek *Auspoa* bilduman: *Bertso mordoxka*, *Gordean neuzkanak*, *Beranduko lanak*, *Lazkao-Txiki gogoan*, *Enbor zarraren ezpalak*, *Kantuaren ordañez*, *Uztapide gogoan* eta, orain, erakusketarekin batera etorri den *Erri-gizonak*.



**A**hozko ondarea jasotzeko egitasmoak ugaltzen ari dira. Gaur baino lehen ere mintzatu gara Eibarko "Eibartarren Ahotan" egitasmoari buruz. Honen asmoa da hurrengo belaunaldiei XX. mende hasierako bizimoduaren ñabardurak eta alderdi desberdinak zehatz-mehatz jasoko dituen ikus-entzuzko artxibo eta datu-basea uztea. Horretarako, Eibarren, herriko nagusiekin hitz egiten ari dira eta antzinako ipuin eta kontuak grabatzen. Esan behar da oraindik orain on-line jarri dutela aipatu dugun **Eibartarren Ahotan** artxiboa. ([www.egoibarra.com/Egoibarra/lkerketak/Eibartarren\\_Ahotan](http://www.egoibarra.com/Egoibarra/lkerketak/Eibartarren_Ahotan)).

Uribe Kostatik ere antzeko ekimen baten berri heldu zaigu. Uribe Kostako Mankomunitateak inguruko ehun euskaldun elkarrizketatzeko asmoa hartu du, eskualdeko euskalkia berreskuratu eta bizirik iraunarazteko asmoz. Eibarren bezala, kantuak, kontuak, lexikoa eta beste bilduko dira, **Uribe Kosta eskualdeko hizkeraren fonetika, fonologia eta morfologia** aztertzeko.



**A**urten hil diren idazleen artean dira Julian Alustiza eta Eugenio Agirretxe, frantziskotar sermolari bikainak. Orain, berriz, bai frantziskotarrei eta bai sermolari-tzari loturik dagoen lana argitaratu du Labayru Ikastegiak: **Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)** du izena eta, bertan, Nagore Etxebarria egileak Arantzazuko, Zarauzko eta Bermeoko frantziskotar komentuetako XVIII-XX mendeetako 4.000 euskal eskuizkribu ezezagunetatik gora bildu ditu, paperaren eta euskarri informatikoan, aditu eta ikertzaileen lana errazteko asmotan betiere.





**B**izkaiko Foru Aldundiaren liburutegia albiste-iturri izan da berriki. Batetik, bertako katalogoak biltzen dituen liburuetatik 6.000 saretik doan jaisteko moduan direlako. Honi dagokionez,

Aldundiak material hori deskargatzeko erraztasunak ere jarri ditu erabiltzaileen eskura, jakintza eta kultura munduan zabaltzeko asmotan. Iaz, esaterako, 1.750.000 kontsulta baino gehiago egin ziren liburutegiko funtsetara; horietarik batzuk, AEB, Hong Kong eta Argentinatik egin ziren.

Liburutegi hori beste arrazoi batengatik ere izan da notizia, ordea. Izan ere, Augustin Zubikarainen funts bibliografiko, hemerografiko eta dokumentala jaso du. Idazle, ikertzaile eta eskaltzale izan zen Zubikarai eta haren liburu-fondoak 3.000 liburu baino gehiago zituen, artxibo oparoarekin batera.

A. Zubikarainen berri jakin nahi izanez gero, ikus euskara.euskadi.net.



**I**rakurtzeko eta idazteko zaleztasuna zabaltzeko asmotan ari dira aspaldi Hezkuntza Saila eta Euskal Idazleen Elkartea (EIE). *Idazleak Ikastetxeetan* programa da ekinbiderik sendoenetakoa. Egitasmo hori

esker, hainbat euskal idazlek hartu du hantemengo eskoletarako bidea eta ikasleekin harremanetan jarri da. Ekimen horren osagarri *Liburuen xarma* izeneko gidaliburuen bilduma aipatu beharra dago. Oraindik orain, bildumako 5. eta 6. aleak kaleratu dira: **Saikeran saiatzeko gida**, Fito Rodriguezek paratutakoa, eta **Eleberria lantzeko gida**, Axel Luzarragarena.



Euskalduna Jauregian. Bertan, nazioarteko hainbat kultur adituk hartu zuten parte, Euskal Autonomia Erkidego zein atzerriko kultur politiken gaineko hausnarketa eginez.

Biltzarraren zerumugan Kulturaren Euskal Plana egon da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bultzatutako plana.



**K**antuketan izan zen bezala, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak egitasmo berria abiarazi du, *Batekmila* izeneko. Euskal Herria aniztasun kulturalaren aurrean jartzen du *Batekmila* proiektuak eta kultur bizikidetasuna sustatu nahi du. Kultur ekintza da, ezberdintasun kultural eta sozialen gaidikoa. Hainbat ikuspegi ditu (harremanak, memoria kolektiboa, heziketa, sorkuntza...), bai eta hainbat ekintza ere. Horietan azpimarragarri da *Batekmila* ikusgarria, antzerkia, dantza eta kantua biltzen dituena. Alor askotako artistak elkartzen dituen ikusgarriari esker, Euskal Herriko kondairak berriro dituzte. Parte hartzaileen artean dira, esaterako, Theatre du Rivage antzerki-taldea, Biarritz gazte-baleta eta Beñat Achiary kantaria.

*Batekmila* egitasmoari buruzko informazio osoa Euskal Kultur Erakundearen web gunean, [www.eke.org](http://www.eke.org) helbidean.



**E**uskara aztergai da nazioartean. Oraindik orain, Joshua Fishman soziolinguista ezagunak zuzentzen duen *International Journal of the Sociology of Language* (IJSL) aldizkariak euskarari eskaini dio 174. ale

ia osoa. Zazpi artikuluk eta hiru libururen aipamen laburrek osatzen dute euskarari eskainitako tarte. Materiala, Euskal Herriko hainbat adituk prestatu dute, Maria Jose Azurmendik eta Iñaki Martinez de Lunaren ardurapean.



**A**sko dira herri batean zein bestean, euskaraz eskaintzen diren zerbitzuak. Maiz, ez dugu horien berririk. Hutsune hori betetzeko asmoz, Bizkaiko 22 udalerrik, **"Euskaraz zerbitzuak, zerbitzuak euskaraz"** izeneko kanpaina abiarazi dute herrian herriko zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten denda, enpresa, profesional eta gainerakoen izenak zabaldu nahirik. Arrigorriaga, Basauri, Berango, Erandio, Galdakao, Getxo eta Leioako udalek eta Uribe Kosta eta Enkarerrietako Mankomunitateek egin dute bat kanpaina honetan. Kanpainak 300.000 lagun eragingo dio.

"Euskaraz zerbitzuak, zerbitzuak euskaraz", euskararen transmisioa helburu duen egitasmo handiaren jarraipena da, hau da, haur jaio berrientzako "Emaiozu euskara" edo udako "Euskaraz blai, arraina uretan legez" kanpainen ondokoa.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatuta batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

